

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



Gure produktuak eta eskainiko ditugun hitzaldi eta ikastaroak bezeroengana helarazteko ondorengo jarraipen hauek garatuko ditugu:

1. Denda inauguratzen dugun egunean herriari etortzeko gonbidapena luzatuko diogu eta bertan triptiko batzuk banatuko ditugu, hurrengo hilabeteetan egongo diren hitzaldi eta ikastaroekin
2. Web orrialde bat sortu dugu, non gure filosofia, saltzen ditugun produktuak eta aukerak eta izango ditugun hitzaldiak islatzen diren
3. Sare sozialak egingo ditugu dendaren izenean BERDIE izenarekin. Bertan gure dendako produktuak aurkezten joango gara, hitzaldi eta ikastaroen inguruko informazio helaraziko dugu
4. Youtube-n kanal bat irekiko dugu Berdie izenarekin eta bertan dendan egiten ditugun hitzaldi eta ikastaroen laburpenak jarriko ditugu. Hortaz, gain gure produktuen aurkezpen bideo txikiak egingo ditugu.
5. Herriko aldizkarian, gure dendaren iragarkia jarriko dugu. Gainera, saiatuko gara aldizkariak elkarrizketak bat egiten, horrela gure ideia herriari zabalduko diogu.

Salmenta kanalei dagokionez , gure lekua denda fisikoa eta interneteko web orrialdea izango dira.

Bezeroekin izango ditugun harreman guneak, dendan bertan, herriko dinamikan eta sare sozialen bitartez burutuko dira. Komunikazio kanal hauek izugarritzko lana dute atzean beraz, taldeko kide bat sare sozialen eta bertatik bezeroekin harremanak izango dituen arduraduna izango da. Astean behin gainontzeko bazkideekin elkartuko da, informazio, ebaluazio eta berriazaltzeko.

Salmenak egitean, gure bezeroei gonbidapena egingo diegu gure sare sozialetan edo eta web orrialdean produktuen inguruko balorazioa egiteko.